A- 3100 ERREPIDEAN, HAIN ZUZEN ERE FUENTE DE LA PROVINCIAN, PISATZEKO KONTROL AREA BAT ERAIKITZEKO PROIEKTUA
PROYECTO DE CONSTRUCCIÓN DE ÁREA DE CONTROL DE PESAJE EN LA CARRETERA A-3100 EN LA FUENTE DE LA PROVINCIA

ESP./EXPTE. 10/15

| FINKAREN ZK. | JABEAREN IZENA | KATASTROKO DATUAK | | | APROBETXAMENDUA | ERAGINDAKO AZALERA / SUPERFICIE AFECTADA (M2) | | | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | POLIGONOA | LURZATIA | UDALA | | BEHIN BETIKOA | BEHIN-BEHINEKOA | AIREKO ZORTASUN ELEKTRIKOA 16 M | | |
| Nº DE FINCA | NOMBRE DEL PROPIETARIO | DATOS CATASTRALES | | | APROVECHAMIENTO | SUPERFICIE AFECTADA (M2) | | | DÍA | HORA |
| | | POLÍGONO | PARCELA | AYUNTAMIENTO | | OCUPACIÓN DEFINITIVA | OCUPACIÓN TEMPORAL | SERVIDUMBRE AÉREA ELÉCTRICA 16 M | | |
| 1/000 | JOSE LUIS DIAZ DE DURANA IBAÑEZ DE ZUAZO<br>M. SOLEDAD PIPAON BENGOA | 4 | 257 | BARRUNDIA | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | 1.895,00 | | 208,00 | 24/05/10 | 09:30 |
| 2/000 | FLORENCIO LOPEZ DE VICUÑA IÑIGUEZ DE HEREDIA | 4 | 258 | BARRUNDIA | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | 333,00 | | 976,00 | 24/05/10 | 10:15 |
| 3/000 | FERMÍN PÉREZ DE SAN ROMAN LÓPEZ DE ILARRAZA | 4 | 259 | BARRUNDIA | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | 18,00 | | 2.848,00 | 24/05/10 | 11:30 |
| 4/000 | ETXABARRI-URTUPIÑAKO ADMINISTRAZIO BATZORDEA<br>JUNTA ADMINISTRATIVA DE ETXABARRI-URTUPIÑA | 4 | 261 | BARRUNDIA | ALFER LURRA / IMPRODUCTIVO | 27,00 | | 4.880,00 | 24/05/10 | 12:15 |
| 6/000 | JAVIER ALDASORO SAGASTI | 1 | 1118 | IRURAIZ GAUNA | LEHORREKO LABOREA / CULTIVO SECANO | 9,00 | | 1.056,00 | 24/05/10 | 13:00 |
| 5/000 | EZEZAGUNA / DESCONOCIDO | 4 | 276 | BARRUNDIA | ETZE-LARREA / ERIAL PASTO | 9,00 | | 704,00 | 24/05/10 | 13:45 |

## INGURUMEN SAILA

INGURUMEN ZUZENDARITZA

**3325**

**Natura zaintzeko 70/09 zehapen espedientearen alorrean Ingurumen zuzendariak emandako ebazpena jakinaraztea.**

Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak 59.5 eta 61. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, ALHAOn argitaratzen den iragarki honen bidez jakinarazten da ondoren zerrendatzen den zehapen espedienteari buruzko ebazpena, ezin izan baita ohiko bideak erabilita jakinarazi. Zehapen espediente hori Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 76.3.c) artikulua hausteagatik bideratu da.

Espedientea interesdunen eskueran dago Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Saileko Ingurumeneko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan. (Probintzia plaza 4, 3.a, eskuina).

Interesdunak jakin dezan argitaratzen da, ohar honekin:

iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ingurumen Saileko diputatuari.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 10a.– Ingurumen zuzendaria, JUANJO YARRITU RUIZ DE GORDEJUELA.

| ESPEDIENTEA | TITULARRA/BERMATZAILEA | NANA | EGUNA | HAUTSITAKO ARAUA |
|---|---|---|---|---|
| 70/09 | SERVANDO BONILLA REINA | 16.243.205-F | 08/04/10 | 76.3.c) |

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE

DIRECCIÓN DE MEDIO AMBIENTE

**3325**

**Notificación de resolución del Director de Medio Ambiente en el expediente sancionador en materia de conservación de la naturaleza nº 70/09.**

De conformidad con lo establecido en los artículos 59.5 y 61 de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se realiza la presente notificación mediante anuncio en el BOTHA, al haberse intentado sin efecto notificar la resolución del procedimiento sancionador que se indica a continuación, por infracción al artículo 76.3.c) de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

El expediente se halla a disposición de los interesados en el Servicio de la Secretaría Técnica de Medio Ambiente del Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava. (Plaza de la Provincia, 4 – 3º dcha).

Lo que se hace público para conocimiento del interesado con la siguiente advertencia:

En el plazo de 1 mes, contado a partir del día siguiente de la publicación de este anuncio, podrá interponerse Recurso de Alzada ante el Diputado de Medio Ambiente.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de mayo de 2010.– El Director de Medio Ambiente, JUANJO YARRITU RUIZ DE GORDEJUELA.

| EXPEDIENTE | TITULAR/GARANTE | D.N.I. | FECHA | PRECEPTO INFRINGIDO |
|---|---|---|---|---|
| 70/09 | SERVANDO BONILLA REINA | 16.243.205-F | 08/04/10 | 76.3.c) |

## GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**3212**

**Gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, kongresuak eta mintegiak antolatzeko laguntzen deialdi publikoa.**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2010eko apirilaren 20an egindako bilkuran, gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, kongresuak eta mintegiak antolatzeko dirulaguntzen deialdi hau onartzea eta argitaratzea erabaki du. Hauexek dira deialdia arautzen duten oinarriak:

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**3212**

**Convocatoria pública de Ayudas para la Organización de Cursos, Jornadas, Congresos y Seminarios relacionados con las actividades de los Servicios Sociales.**

El Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, en sesión celebrada con fecha 20 de abril de 2010, ha resuelto aprobar y publicar la presente Convocatoria de Ayudas para la Organización de Cursos, Jornadas, Congresos y Seminarios relacionados con las actividades de los servicios sociales, que se regirá por las siguientes

## OINARRIAK

**1. oinarria.- Deialdia**

1.1. Gizarte zerbitzuen jarduerekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, kongresuak eta mintegiak antola daitezen dirulaguntzak eskuratzeko 2010eko deialdi publikoari hasiera eman zaio.

1.2. Deialdi honen helburua hauxe da: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ikastaroak, jardunaldiak, kongresuak eta mintegiak antolatu eta garatzen laguntzeko itzuli beharrik gabe eman ditzakeen dirulaguntzak arautzea.

1.3. Prestakuntzako ekintza horiek zerikusia eduki behar dute gizarte zerbitzuen jarduerekin, eta Arabako Lurralde Historikoan egin behar dira.

**2. oinarriak.- Erakunde onuradunak**

2.1. Ondoren deialdi honetako laguntzak jaso ditzaketen erakundeak zehaztuko dira:

a) Irabazteko xederik ez duten elkarteak, fundazioak eta erakunde pribatuak.

b) Tokiko erakunde publikoak.

c) Irabazteko xedea duten erakunde pribatuak, baldin eta gizarte zerbitzuen sare publikoarekin lankidetzan aritzen badira zerbitzuak edota jarduerak egiten.

2.2. Deialdi honetan biltzen diren laguntzak emateko, kontuan izango da deialdian bertan eta indarrean dagoen arautegian ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez.

2.3. Deialdi honen arabera, 2010eko ekitaldian zehar gauzatutako prestakuntzako jarduerak baino ezin izango dira finantzatu.

2.4. Ezin izango dute deialdi honetan parte hartu sexu bereizkeriagatik zehapen administratiboa edo penala jasan duten erakundeek, harik eta zehapenean ezarritako epealdia amaitu arte, ez eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Legea aplikatuz honelako deialdietan parte hartzeko debekua zehapen gisa ezarri zaien erakundeek ere.

**3. oinarria.- Aurrekontua eta laguntzen zenbatekoa**

Deialdi honen babespean ematen diren laguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2010eko aurrekontuaren kredituari egotziko zaizkio; hona partidak:

- 1.80201.0100.461.00.01 “Prestakuntzako programak antolatzen dituzten elkarteentzako laguntzak”. Zenbatekoa: 40.500 euro.
- 1.80201.0100.431.99.29 “Prestakuntzako programak antolatzen dituzten udalentzako laguntzak”. Zenbatekoa: 2.000 euro.
- 1.80201.0100.450.00.01 “Prestakuntzako programak antolatzen dituzten enpresentzako laguntzak”. Zenbatekoa: 2.000 euro.

**4. oinarria.- Bateraezintasunak**

4.1. Programa berezi batek dirulaguntza hauetako bat jasotzen badu, ezin izango du jaso Arabako Foru Aldundiaren beste sail baten edo honi atxikitako erakundeen beste laguntza ekonomikorik edo dirulaguntzarik; salbuespena: bi erakundeek baimena ematen badute, laguntzak pilatu daitezke.

4.2. Deialdi honen araupean emandako dirulaguntzen zenbatekoa (zenbateko horrek bakarrik nahiz bestelako erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntzekin batera) ezin da izan inolaz ere erakunde onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

4.3. Halaber, deialdi honetan parte hartzen duten erakundeek hauxe adierazi behar dute eskabidean: helburu berarekin beste erakunde batzuei dirulaguntzak eskatu edo eskatuko dizkieten.

4.4. GOFEk onartzen den aurrekontu garbiaren ehuneko 100 finantza dezake. Hala bada, ezin izango da jaso helburu bererako beste pertsona edo erakunde batzuek emandako laguntzarik.

4.5. Hala ere, eskatu den laguntza jardueraren kostuaren zati bat besterik ordaintzeko bada, beste batzuen ekarpenak erabili ahal izango dira kostuaren beste zatia ordaintzeko.

## BASES

**Base 1ª - Convocatoria.**

1.1. Se abre la Convocatoria Pública de Ayudas para la Organización de Cursos, Jornadas, Congresos y Seminarios relacionados con las actividades de los Servicios Sociales, correspondiente al año 2010.

1.2. Es objeto de la presente convocatoria, regular las ayudas que podrá otorgar el Instituto Foral de Bienestar Social, en concepto de subvención a fondo perdido para la contribución al desarrollo y organización de cursos, jornadas, congresos y seminarios.

1.3. Dichas acciones formativas deben estar relacionadas con las actividades de los servicios sociales y han de realizarse dentro del Territorio Histórico de Álava.

**Base 2ª - Entidades beneficiarias.**

2.1. Podrán ser beneficiarias de las ayudas que se contemplan en la presente Convocatoria:

a) Asociaciones, Fundaciones y Entidades Privadas sin ánimo de lucro

b) Entidades Públicas Locales

c) Entidades Privadas con ánimo de lucro que colaboren en la prestación de servicios y/o actividades con la red pública de servicios sociales.

2.2. Para la concesión de las ayudas objeto de esta Convocatoria, se tendrá en cuenta el cumplimiento del conjunto de requisitos y condiciones establecidas en esta Convocatoria y en la Normativa vigente.

2.3. Únicamente podrán ser objeto de financiación mediante las ayudas de la presente Convocatoria, aquellas acciones formativas que hayan sido realizadas durante el ejercicio 2010.

2.4. No podrán concurrir a esta Convocatoria, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las entidades sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

**Base 3ª - Presupuesto y cuantía de las ayudas.**

Las ayudas que se concedan al amparo de la presente convocatoria se imputarán al crédito presupuestario de las siguientes partidas incluidas en el Presupuesto del Instituto Foral de Bienestar Social para 2010:

- Partida 1.80201.0100.461.00.01 “Ayudas Asociaciones Programas Formación”, dotada en la cantidad de 40.500 euros
- Partida 1.80201.0100.431.99.29 “Ayudas Ayuntamientos Programas Formación”, dotada en la cantidad de 2.000 euros
- Partida 1.80201.0100.450.00.01 “Ayudas Empresas Programas Formación”, dotada en la cantidad de 2.000 euros

**Base 4ª - Incompatibilidades.**

4.1. Las subvenciones concedidas para programas específicos serán incompatibles con cualquier otra ayuda económica o subvención a que puedan acogerse en otros Departamentos de la propia Diputación Foral de Álava u organismos adscritos a éstos salvo que expresamente haya sido autorizado conjuntamente por los organismos afectados.

4.2. La cuantía de las subvenciones que se concedan al amparo de la presente convocatoria, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras entidades públicas o privadas u otros ingresos, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria de la misma.

4.3. Así mismo las entidades que, además de acceder a la presente convocatoria, hayan solicitado o tengan previsto presentar solicitud de subvención con la misma finalidad, a otros Organismos o Entidades, están obligadas a hacerlo constar expresamente en la solicitud.

4.4. El I.F.B.S. podrá financiar hasta el 100 por ciento del presupuesto neto que resulte aprobado, en cuyo caso la ayuda será incompatible con cualesquiera otra que, para el mismo objeto, se reciba de terceras personas o entidades.

4.5. La incompatibilidad tendrá carácter parcial cuando la dotación solicitada no cubra el coste total de la actividad objeto de subvención, en cuyo caso podrá concederse la diferencia del coste no cubierto por otras aportaciones.

**5. oinarria.- Eskabideak aurkeztea**

5.1. Deialdi honetako dirulaguntzak jasotzeko eskabideak eredu normalizatuan aurkeztu behar dira. Eredua Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak emango du (Alaba Jeneralaren kalea, 10, 4., 7. bulegoa, Vitoria-Gasteiz) edo, bestela, helbide elektroniko honetan eska daiteke: pandres@alava.net.

Deialdi honi buruzko argibideak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean eskuratu ahal izango dira, honako bide hauek erabiliz:

Tel.: 945- 15.10.15

Faxa: 945- 15.10.17

5.2. Eskabideak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egoitzan aurkeztu behar dira; harekin batera oinarri hauetan eskatutako agiriak ere aurkeztu behar dira. Hala ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4. artikuluan (4/1999 Legeak finkatutako testua) xedatu den bezala ere aurkeztu daitezke. Eskabidearekin batera eskatzen diren agirien jatorrizkoak eraman behar dira.

5.3. Eskabideak aurkezteko egutegiko hogeita hamar eguneko epealdia egongo da deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak aurkezteko epealdiko azken eguna foru administrazio honentzat laneguna ez bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

5.4. Salbuespen gisa, epealdian jasotako eskabideak ebatzi ondoren, baldin eta aurrekontuetan nahikoa kreditu badago, epez kanpoko eskabideak ere onartuko, baina inolaz ere ez 2010eko azaroaren 30az gero. Hala gertatuz gero, eskatutako laguntzen beharrak ezarritako epealdiko azken egunaz geroztik sortu direla frogatu beharko da, eta indarrean dagoen arautegiaren arabera laguntza justifikatzen duten arrazoiak badaudela ere bai.

**6. oinarria.- Aurkeztu beharreko agiriak**

5. oinarrian aipatutako eskabide orriarekin batera ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira eskatutako laguntzei buruz:

a) 1. eranskina. Erakunde eskatzailearen fitxa teknikoa.

b) 2. eranskina. Lankidetzarako konpromisoa.

c) 3. eranskina. Prestakuntza proiektua:

• Jardunaldiaren, ikastaroaren edo mintegiaren izena

• Lortu nahi diren helburuak

• Jardueraren egokitasunaren justifikazioa

• Onuradunak

• Gutxi gorabehera zenbat jende bertaratuko den

• Hizlarien zerrenda (gaiaren inguruan duten eskarmentua zehaztu behar da)

• Gaien gidoia

• Jarduera zein egunetan egingo den

• Jardueraren ordu kopurua

• Zein herritan eta zein lekutan egingo den

d) 4. eranskina. Prestakuntza jardueraren gastu eta sarrerak, gutxi gorabehera.

e) 5. eranskina. Bankuko datuak (dirulaguntza lehen aldiz eskatzen duten erakundeek eta helbideratzea aldatu dutenek).

f) 6. eranskina. Ondokoari buruzko zinpeko adierazpena: Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aplikatuta enpresari ez diotela zehapen gisa ezarri laguntza eta dirulaguntzen deialdietan parte hartzeko debekua.

g) Laguntza eskatzen duen erakunde batek bere soldatapeko langileak edukiz gero, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren ziurtagiria aurkeztu behar dute, hain zuzen ere harekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena. Foru Erakundeak ofizioz eskatuko dio Foru Ogasunari erakunde eskatzaileak zerga betebeharretan egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria.

**Base 5ª - Presentación de las solicitudes.**

5.1. Las solicitudes para concurrir a las ayudas objeto de la Convocatoria, se formalizarán en el correspondiente modelo de instancia normalizada que se facilitará en el Instituto Foral de Bienestar Social, c/General Álava, 10-4º, Dpto. 7. Vitoria-Gasteiz o solicitándola en la dirección de correo electrónico pandres@alava.net

Cualquier información sobre esta convocatoria será facilitada en el Instituto Foral de Bienestar Social a través de los siguientes medios:

Tfno: 945- 15.10.15

Fax: 945- 15.10.17

5.2. Las solicitudes, las cuales deberán ir acompañadas de la documentación requerida en las presentes Bases, serán presentadas en la sede del Instituto Foral de Bienestar Social, pudiendo ser también presentadas en la forma establecida en el Artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en redacción dada por ley 4/99. A las mismas se acompañará, en el momento de su presentación, original de la documentación exigida.

5.3. El plazo para la presentación de dichas solicitudes será de treinta días naturales contados a partir del día siguiente al de publicación de la presente Convocatoria en el BOTHA. En el supuesto de que la fecha de finalización del plazo concedido coincida con un día no laborable para esta Administración Foral, dicho plazo se ampliará hasta el primer día hábil siguiente.

5.4. Con carácter excepcional, una vez resueltas las solicitudes recibidas en plazo y, siempre que exista crédito presupuestario disponible al efecto, podrán admitirse a trámite solicitudes de ayuda fuera del plazo antes referenciado y antes del 30 de noviembre de 2010, debiéndose acreditar en todo caso que las necesidades de las ayudas han surgido con posterioridad al plazo de presentación ordinario, así como que existen probadas razones que las justifiquen de acuerdo con la normativa vigente.

**Base 6ª - Documentación a presentar.**

Junto con la instancia-solicitud a que se refiere la base 5ª, de las ayudas correspondientes a los proyectos presentados, deberá acompañarse la siguiente documentación:

a) Anexo 1. Ficha Técnica de la entidad solicitante.

b) Anexo 2. Compromiso de Colaboración.

c) Anexo 3. Proyecto Formativo:

• Denominación de la jornada, curso o seminario.

• Descripción de los objetivos a alcanzar

• Justificación de la idoneidad de la actividad

• Personas destinatarias

• Previsión del número de personas asistentes

• Relación de ponentes, con especificación de su experiencia en la materia

• Guión temático

• Fechas de realización de la actividad.

• Número de horas que se impartirán

• Localidad y sede de celebración.

d) Anexo 4. Previsión de gastos e ingresos de la actividad formativa.

e) Anexo 5. Datos bancarios, para las entidades que soliciten la subvención por primera vez o aquellas que hayan modificado su domiciliación bancaria.

f) Anexo 6. Declaración jurada de no estar sancionada con la prohibición de concurrir a las convocatorias de las subvenciones y ayudas en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres

g) Aquellas entidades solicitantes de las ayudas que cuenten con personal asalariado a su cargo, deberán presentar certificación actualizada de la Tesorería General de la Seguridad Social acreditativa de estar al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social. El Instituto Foral recabará de oficio de la Hacienda Foral certificación acreditativa de que la entidad solicitante se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias.

**7. oinarria.- Dirulaguntza emateko irizpideak**

Laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Dirulaguntzetarako dagoen diru kopurua proportzionalki banatuko da onuradunen artean.

Hona hemen dirulaguntzak emateko erabiliko diren irizpide nagusiak:

a) Zenbateraino egokitzen den proiektatutako prestakuntza jarduera gizarte zerbitzuen jardueraren lehentasunezko arloetan dauden beharretara. Gehienez, 40 puntu.

• Ez da batere egokia: 0 puntu
• Egokia, hala-moduz: 10 puntu
• Nahiko egokia: 20 puntu
• Erabat egokia: 30 puntu
• Oso egokia: 40 puntu

b) Aurkeztutako proiektuan azaltzen den jarduera programan generoaren ikuspegia sartu den ala ez, eta sektoreko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren gaineko edukiak sartu diren ala ez. Gehienez, 10 puntu.

• Ez da ezer sartu: 0 puntu
• Modu partzialean sartu da: 2 - 8 puntu bitartean
• Modu orokorrean sartu da: 10 puntu

c) Antolatu nahi den prestakuntza jardueraren kalitatea. Gehienez, 30 puntu.

• Txikia: 0 puntu
• Nahikoa/Ertaina: 15 puntu
• Handia: 30 puntu

d) Aurkeztutako prestakuntza ekintzak lantzen dituen gaiak berritzaileak diren ala ez. Gehienez, 20 puntu.

• Berrikuntzarik ez: 0 puntu
• Berrikuntza eskasa: gehienez, 10 puntu
• Berrikuntza handia: gehienez, 20 puntu

e) Prestakuntza jarduera jasoko dutenen profila. Gehienez, 10 puntu.

• Gizarte zerbitzuen xede berezi diren pertsonentzako jarduerak (menpekotasunean daudenak, adinekoak, ezintasunen bat dutenak, gizarte arriskuan daudenak, babestutako adingabeak): 10 puntu

• Beste pertsona batzuentzako jarduerak: 0 puntu

f) Proiektua zenbat lagunentzat den. Gehienez, 20 puntu.

• Talde handia (50 pertsona baino gehiago): 20 puntu
• Talde txikia: (50 pertsona baino gutxiago): 10 puntu

g) Eskatzen den dirulaguntzaren eta prestakuntza jardueraren gastuen arteko erlazioa. Gehienez, 10 puntu.

• Bi magnitudeen arteko proportzionaltasuna kontuan hartuta, puntuaziorik handiena (10 puntu) emango zaio eskatutako laguntzaren eta jardueraren guztirako gastuaren arteko proportziorik baxuena duen proiektuari.
• Aldiz, puntuaziorik baxuena (punturik ez) emango zaio eskatutako laguntzaren eta jardueraren guztirako gastuaren arteko proportziorik altuena duen proiektuari.
• Gainerako eskaeren puntuazioak zehazteko aurreko biak hainbanatuko dira.

h) Eskatzaileren bat aurreko deialdietan ere dirulaguntza hauetara aurkeztu bada, kontuan hartuko da proiektua programatu bezala bete den eta justifikazioan zorrotz jokatu duen. Gehienez, 10 puntu.

• Zorroztasun eskasa: 0 puntu
• Zorroztasun handia: 10 puntu

**8. oinarria.- Ukatzeko zergatiak**

Hona dirulaguntza ukatzeko arrazoiak:

1. Deialdi honen edozein oinarri ez betetzea.

2. Proiektuak ez lortzea gutxieneko puntuazioa (75 puntu), aurreko oinarrian zehaztutako baremoaren arabera.

3. Erakunde eskatzaileak oinarrietan eskatzen den dokumentazioa ez aurkeztea.

4. Jarduerak aurreko urteetan ere dirulaguntza jaso badu, aurtengo deialdian inolako ekarpenik, berrikuntzarik ez eguneratzerik ez aurkeztea.

**Base 7ª - Criterios de concesión de la subvención.**

El procedimiento de concesión se tramitará en régimen de concurrencia competitiva, procediéndose al prorrateo entre las entidades beneficiarias de la subvención del importe global máximo destinado a las subvenciones.

Como criterios generales de valoración para la concesión de las ayudas se tendrán en cuenta:

a) La adecuación de la actividad formativa proyectada a las necesidades detectadas en las áreas preferentes de actuación de los servicios sociales. Hasta 40 puntos.

• Nada adecuada: 0 puntos
• Poco adecuada: 10 puntos
• Suficientemente adecuada: 20 puntos
• Bastante adecuada: 30 puntos
• Muy adecuado: 40 puntos

b) La incorporación de la perspectiva de género en el programa de la actividad objeto del proyecto presentado, así como de contenidos en relación con la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres en el sector correspondiente. Hasta 10 puntos.

• No contemplada: 0 puntos
• Contemplada parcialmente: entre 2 y 8 puntos
• Contemplada con carácter general: 10 puntos

c) El nivel de calidad de la actividad formativa que se pretende organizar. Hasta 30 puntos.

• Baja: 0 puntos
• Suficiente/Media: 15 puntos
• Alta: 30 puntos

d) El carácter innovador de las materias sobre las que versa la acción formativa presentada. Hasta 20 puntos.

• Ninguna innovación: 0 puntos
• Baja intensidad de la innovación: hasta 10 puntos
• Alta intensidad de la innovación: hasta 20 puntos

e) El perfil del colectivo destinatario de la acción formativa. Hasta 10 puntos.

• Dirigido a personas relacionadas con las áreas de interés preferente de los servicios sociales (situaciones de dependencia, personas mayores, personas con discapacidad, en riesgo de exclusión social y/o protección de menores): 10 puntos
• Dirigido a otras personas: 0 puntos

f) El número de personas destinatarias. Hasta 20 puntos.

• Colectivo amplio (superior a 50 personas): 20 puntos
• Colectivo reducido: (inferior a 50 personas): 10 puntos

g) La relación existente entre la ayuda solicitada y el total de gastos de la actividad formativa. Hasta 10 puntos.

• Atendiendo a la proporcionalidad entre ambas magnitudes, se otorga la máxima puntuación (10 puntos) al proyecto en el que la ayuda solicitada suponga la proporción más baja respecto al gasto total de la actividad programada.
• Se otorga la puntuación más baja (0 puntos) al proyecto en el que la ayuda solicitada suponga la proporción más alta respecto al gasto total de la actividad programada.
• El resto de ayudas recibirá una puntuación prorrateada en función de los dos criterios anteriores.

h) En los casos de concurrencia a estas ayudas en anteriores convocatorias, se valorará el cumplimiento de los proyectos en los términos programados y el rigor en su justificación. Hasta 10 puntos.

• Bajo rigor: 0 puntos
• Alto rigor: 10 puntos

**Base 8ª - Motivos de denegación.**

Serán motivos de denegación de la subvención los siguientes:

1. El incumplimiento de cualquiera de las bases de la presente convocatoria.

2. Que el proyecto no alcance una puntuación de al menos 75 puntos, conforme a la baremación señalada en la base anterior.

3. Que la entidad solicitante no haya aportado la documentación exigida en las bases.

4. Que la actividad haya sido subvencionada en años anteriores y no presente nuevas aportaciones, innovaciones o actualizaciones.

5. Dirulaguntza aplikatzeko den jarduerarako beste sail batzuen edo beste deialdi batzuetako dirulaguntzak jaso ahal izatea.

**9. oinarria.- Dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzea**

Dirulaguntzen zenbatekoak eskabide guztiak hurrenkera zehatz batean antolatu ondoren finkatuko dira. Hurrenkera deialdiaren 7. oinarrian adierazten da.

Irizpideei dagozkien puntuen batuketak zenbaki bat emango du eta horrek, jarraian adierazten den eskalan agertzen den bezala, aurrekontuaren arabera eman daitekeen gehieneko ehunekoa adieraziko du, bai eta kontzeptu bakoitzarengatik (10. oinarrian zehazten da hori) eman daitekeen gehieneko zenbatekoa ere. Edonola ere, zenbatekoa, orotara, ezin da izan 8.000 euro baino gehiago.

| PUNTUAZIOA: | DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA GEHIENEZ ERE |
|---|---|
| gehienez, 74 puntu | ehuneko 0 |
| 75-90 puntu | ehuneko 60 |
| 91-105 puntu | ehuneko 70 |
| 106-120 puntu | ehuneko 80 |
| 121-135 puntu | ehuneko 90 |
| 136-150 puntu | ehuneko 100 |

Eskabideen kopurua eta eman beharreko dirulaguntzen guztirako zenbatekoa direla eta gehieneko ehunekoak txikitu behar izanez gero, aurreko eskalan adierazitako proportzioan txikituko dira.

**10. oinarria.- Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak eta gehieneko aurrekontuak.**

Hauexek izango dira:

- Hizlariekin lotutako gastuak (ordainsariak, joan-etorriak, ostatua eta janaria, etab)
- Jardueraren publizitatea egiteko moldiztegiko gastuak eta zabalkunderakoak
- Ikastaroaren azpiegiturarekin lotutako gastuak (gelaren alokairua, ikus-entzunezko materiala…)
- Parte hartzen dutenentzako materialarekin zerikusia duten gastuak (dokumentazioa, karpetak, material suntsikorra…)
- Jarduera koordinatuko duen idazkari teknikoaren kontratazioaren gastuak
- Jardueraren antolamenduaren ondoriozko gastuak, frogatzen zail direnak (telefonoa, paper gauzak, fungibleak...)
- Jardueraren antolamenduari lotutako beste gastu batzuk (apaingarriak, mezularitza, umezaintza,...)

6. oinarriaren 4. eranskinean ezarritakoarekin bat etorriz, jarduera bakoitzaren proiektuan berak eragindako gastu guztiak adierazi behar dira.

| Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak: | Kontzeptuko, gehienez |
|---|---|
| Hizlarien ordainsariak | 90 euro orduko |
| Hizlarien joan-etorriak<br>a) norberaren autoan edo taxian<br>b) beste garraiobide batzuk | <br>0,29 euro kilometroko<br>500 euro pertsonako |
| Hizlarien ostatua | 80 euro eguneko |
| Hizlarien dietak | 42 euro eguneko |
| Moldiztegiko gastuak (publizitatea) | gehienez, 400 euro |
| Jardueraren egoitza | 200 euro eguneko |
| Ikus-entzunezkoen alogera | 100 euro eguneko |
| Parte hartzaileentzako agiriak | 10 euro pertsonako (muga: 1.000 euro) |
| Idazkari teknikoa | 60 euro ikastorduko |
| Gastu justifikagaitzak | Aurreko kontzeptuen baturaren ehuneko 5 (muga: 150 euro) |
| Jarduerarekin zuzenean lotutako beste kontzeptu batzuk | Zenbatekoaren ehuneko 100, muga honekin: gainerako kontzeptuen baturaren ehuneko 30. |

5. Que la actividad para la que se solicita la ayuda sea susceptible de ser subvencionada por otros Departamentos o por otras convocatorias de ayudas.

**Base 9ª - Fijación de la cuantía de la subvención.**

El importe de la subvención se determinará una vez ordenadas las solicitudes en función de la puntuación obtenida por aplicación del baremo señalado en la base 7ª de la presente convocatoria.

